

“KLIK” BATEN ONDORENAK

Pako ARISTI

Argitalpen guztietan, esaldi famaturen bat agertzen denetan, beti jartzen da autorearen izena. Olerki bat erreztatzen badigute, “nor da egilea?” galdetuko dugu jakinmin logikoaz. Irratian kanta bat jarri aurretik, edo bukatu bezain laster, sortzailearen izena aipatzen digute. Zergatik argazki askotan ez da ageri egile-izenik, nahiz argazki-gintza artetzat jo izan den?

Asko ikusiak eta sarritan erreproduzituak izan diren zenbait argazki hartu ditugu eta egilea aurkitzen saiatu.

Argitalpenetan argazkien egile-izenak jarri izan balira erreportaia honek ez luke zentzu handirik, baina badirudi gurean zerutik erortzen diren hostoen pare jartzen dela produktu hau. Gutxi errespeta-tzen dira hemen egileen eskubideak, pertsona bat ondorengo belau-naldientzako erretratatua izan zen une majikoak sortzailerik izan ez balu bezala.

Argazki ez den argazkia

1 980ean, Martin Zabaleta eta Pa-sang Temba sherpak Everest-eko gailurrari ekin ziotenean gau-za asko eraman zituzten soinean. Mendiko tresnez aparte, bere amak babes gisa emandako errosarioa zera-man Martinek, ikurrina, 16 milimetroko zine-kamara eta Rokkei etxeko argaz-ki-kamara txiki bat.

Bidean argazki batzu atera zituen, eta gailurra zapaldu zutenean, argazki gehiago, Martinek Tembari eta Tem-bak Martini, 16 milimetroko irudiekin batera.

Hegoaldeko kanpamentura jaitsi zire-nean, Juan Inazio Lorente taldekideak egin zuen lendabiziko gauza izan zen Martini Rolluei txikia kendu eta roiloa rebobinatu historiarako hain garrantzi-tsuak ziren irudiak leku jakin eta segu-ruan gordetzeko.

“Roiloak ez zuen korritu”

Berehala konturatu zen Lorente handik ez zela argazkirik aterako, roiloa ez bait zen bere lekutik batere mugitu. “Rollei-ak oso kamara bitxiak dira” -ar-gitu digu Lorentek- “ondo engantxa-tzen ez baduzu gero, botoia sakatzera-koan roiloak ez du korritzen, ez du



Temba Everest-eko puntan. Zabaletari ez zion argazki-kamara behar bezala ibili eta historiarako bideoko grabazioa besterik ez zen geratu.

bueltarik ematen, eta hori gertatu zitzaion Martini, roiloak ez zuen korritu”.

Euskal Herriak, jendeak behar zuen irudi bat euskaldunak munduko gailurrera iritsi zirela erakusteko, gure gizartean, Santo Tomas fidakaitzaren exenplua nagusitu den honetan, ikusten ez dena (argazkitan edo telebistan) ez bait da kasik esistitzen.

Martin Zabaletak gailurrean Pasang Tembari hartu zizkion zine-irudiak ondo atera ziren. Pelikula horretako fotograma bat aprobetxatu zen, argazki formatora aldaturik, gailurreko irudi geldi bat lortzeko. Hor dago Temba, sherpei eskainitako omenaldia balitz bezala, ikurriña astinduaz Everest gainean.

Poliziari dejada galanta

1 970eko irailaren 18an Juan Aygüés donostiar argazkilari zenak mugaz bestaldeko izen bereko argazkilari eta adiskide bat gonbidatu zuen Anoetako pilota partiduak ikustera. Juan Velez-ek argazki-denda bat zeukan Donibane Lohitzunen, orain 8 urte hil zeneetik bere alaba Maritxuk gobernatzen duena. “Beti argazki makina bat eramaten zuen soinean -gogoan du Maritxuk-baita eskolara nere bila etortzen zenean ere, ikusgarria zen horretan”.

Egun hartan “Pentax” makina bat zera-man. Frontoia jendez gainezka zegoen, pilotazale, uniformedun polizia eta sekretaz ondo osatua, Franco partidua ikustera etorria bait zen. Halako batean susko bola batek horko animazio guztia moztu zuen. Joseba Elosegiz zen salto egin zuena goiko solairutik, bere burua sutan jarri ondoren. Argazki makina asko disparatu ziren hiltzoriaren gainera, haien artean Juan Velezen “Pentax” handia, lau argazkitako sekuentzia bat osatuaz. Polizia ordea karrete guziak kentzen hasi zen. Juanek izan zuen beta, poliziaren kontrolera iritsi baino lehenago, roiloa rebobinatu, praka-zorroan gorde eta hasi gabeko zinta inuzentea sartzeko. Maritxu, haren alabaren ustez, haiek dira Elosegiz sutan delarik existitzen duten argazki bakarrak.



Joseba Elozegi sutan.
(Juan Velez-en argazkiak)



Poliziak eta partiduko ikusle batzu garrak itzaltzen. Ezkerraldean estintorea ageri da.

Ekintza hori egin aurretik Joseba Elozegi zenak idatzia utzi zuen “Quiero morir por algo” liburuaren orijinala. Juan Velezek Elosegiren emaztearekin, Maite Mendizabalekin zuen adiskidantzak egin zuen posible, Telesforo Monzonen bitartekotza ere kontuan hartuz, argazkia zabaltzea. Horrela, 1971ko otsailean liburua, Bordelen egindako argitaraketa bat medio, kale-ratu zenean, posible izan zen azalean Juan Velezen lau argazkietako bat ezartzea. Elozegi garai hartan Yeseria-seko ospitalean zegoen, familiari abisatu gabe burututako gartzela-aldatze baten ondoren.

Liburuan, noski, ez zen argazkiaren egile izenik agertzen. Gero argazkia herrialde askotako egunkarietan ager-

tzen joan zen piskanaka. Polizia argazkilariaren atzetik ibili zen urteetan, eta susmoak harturik bi aldiz bisitatu eta arakatu zuten Juan Velezen denda Donibane Lohitzunen. Juanek negatiboak etxean ondo gordeak, ordea.

Orain bere alabak konserbatzen ditu negatiboak, eta gustora egiten ditu kopiak norbaitek hala eskatu ezkeror. “Milaka kopia egin izan dira argazki horietatik, hainbat tokitan publikatu, baina gure aitak kobratu, sekula xentimorik ez”.

Hau da poliziaren beldurraz bere autorretza ezkutatu behar izan zuen argazkilariaren istorioa eta poliziari sartutako dejada historiko haren parterik ezezagunena.

Bigarren kapitulu honetarako hiru argazki aukeratu ditugu: 'Txirrita' zenari omenaldi egitean Erreterian bizi zen Figurskig abizeneko argazkilari austriar batek egindako argazki famatu hura, batetik. Bestetik, 'Pertur'i egindako azken erretratoa, handik gutxira betiko desgertu bait zen. Eta hirugarrena, euskara idatzia nondik nora batu aztertzen ari zirenei Bitoriano Gandiaga poetak Arantzazun eta 1972an egindako argazkia.

Erreterriako austriarraren erretratoa

TXIRRITAK gogor kondenatu ziotuen, eskribau lanetan jarri zuen bere ilobari diktaturiko bertso zoragarrietan, ezagutzea tokatu zitzaizkion gerrak, eta burruka zentzugabe horrek herrietara ekartzen zuen tristura eta miseria. Paradoxaz, Munduko Lehen Gerratik (1914-1917) ihesi zertorren argazkilari bat izango zen, bertsolari handia hil baino hilabete gutxi lehenago, bere azken argazkia egin eta ondorengo belaunaldientzat ohizkoen eta ezagutuen bilakatu den instantanean jasoko zuena.

Eugenio Figurskig (edo Figursky) Munduko Lehen Gerrate inguruan heldu zen Erreterriara. Austriarra izan behar zuen (batzuentzat polakoa), eta gose-tik ihesi Olibet gailera enpresan lana egiten zuen neska batekin ezkondu zen eta bertan gelditu bizitzen.

Laster bereganatu zuen erretratatzaileraren ospea, eta lana gero eta ugariagoa zelarik bere argazki-dendan, iragarki bat jarri zuen Austriako prentsan, laguntzaile baten eske. Hori zela bide heldu zen geroago beste argazki-



"Txirrita"ren omenez bildutako bertsolari eta bertsozaleak. Hernandorena ezkerraldeko puntan ageri da. (Figurskig-en argazkia).

lari on bat, Schneidhofer izenekoa, in-
dependizatu eta bere kasa hasi ondo-
ren enpresa lanetan espezializatu
zena, Errenteriako historia aztertu
duen Rafael Badresek eman dizkigun
aztarna apurren arabera.

1936an Teodoro Hernandorenak ome-
naldi baten premiaz hitzegin zion Aitzo-
li, Txirritak sobera merezita zeukana.
Aitzol ados agertu zen, baina omenal-
dia Donostian egiteko komenientzia
agertu zion, oiartzun handiagoa izan
zezan. "Bai, baina haruntzago ere joan
egin behar da -erantzun zion Hernan-
dorenak-. Txirrita gizona dago, hanke-
tatik gaizki dabil, bastoia behar du oi-
nez egiteko ere". Argazkian ageri da
Txirritaren bastoia.

Azkenik Errenteriako batzokian egin
zitzaien omenaldia Txirritari. Argazkia-
ren ideia Hernandorenak berak izan
zuen, Txirrita bezain gizon entzutet-
suak gerorako apenas argazkirik ez
zeukala oharturik. Teodorok orain 93
urte dauzka, eta ez zuen argazkilaria-
ren izenik gogoratzen, bakarrik "euske-
raz ez zekiela, eta gazteleraz ere gaiz-
ki".

Argazkilaria ezezaguna

1976ko udaberrian jende asko bildu
zen Baionan egoera politikoa aztertze-
ko antolatutako bilera hartara. Tartean
Eduardo Moreno Bergaretxe 'Pertur',
ETAko zuzendaritzan zegoena eta bu-

ruka armatuan erreflesioari arraildu-
rak irekiaz, pentsatzeko ahalmenari
leihoak zabalduez, nahi zuena ekintza
politikoa nagusitu gailendu zedin eki-
men armatuaren gainetik.

E.I.A.ren (Eusko Iraultzaren Alderdia-
ren) hasierako garaia zen, eta bazego-
en zer hitzegina bilera haietan, gainera
zeterren (edota jadanik heldua zen) al-
daketa politikora egokitu behar bait zen
burrutako armatua ere. Norbaitek ordea
hitza kendu zion 'Perturri'. Berarentzat
ez zen udaberri gehiagorik heldu. Bile-
ratik irteten ari zela ateratzen argazki
hau. Eta haxe Perturren azken argaz-



Eduardo Moreno Bergaretxe 'Pertur'.

kia. Handik hiru hilabetetara desagertu egin zen eta, gauzak nola diren, erretratoa nork atera zion dakienik ere ez dugu topatu, gogotik saiaturata ere.

Klandestinidadeak irentsi ote zuen bere izena? Kamara urtean behin dispartzen zuenetakoa ote zen? Edo errua haseran argazkia eman zuten komunikabideena izan zen, egile izenik jarri ez zutelako?

Printze eroaren jarraitzaileak

LEIENDAK dioenez, Bonaparte Printzea ia erotu egin zen euskal aditza aztertzen, batzen eta eskematizatzen burutu zituen lan haien ondorioz. Gizon haren kasua gogoan baleukate bezala, euskara batua definitzen hastea lantalde baten zeregina izan zen eta ez pertsona bakar batena.

Bilera bat Bilbon egin zen. Bigarrena, erabakiak hartzeko, Arantzazun, 1972ko uztailan. Bi egun eta erdi enklaustraturik eman ondoren, goizeko bilera bukatu eta gero, tripak korroskadaka zituztela, argazki bat ateratzea pentsatu zuten, goian ikusten den hori, hain zuzen.

Argazkiko lagunez gain, bazkaritara gelditu gabe aldegin zuten bi lagunak ere aipatu beharrekoak dira: Gabriel Aresti eta Josu Oregi.



Zutik, ezkerretik hasita, Mitxelena, Iratzeder, Harritschelhar, Irigoien, Villasante, Satrustegi, Altuna eta Berriatua. Makurtuta, San Martin, Lizundia, Intxausti eta Kintana. (Bitoriano Gandiagaren argazkia).

Taldearen botillero moduan Bitoriano Gandiaga ibili zen, zerbezak eramaten eta abar, eta argazkilari ere bera bilakatu zen, poetek zeregin askotarako balio dezaketela frogatuz, nahiz idea handirik ez zuen. Juan San Martinek bere kamara luzatu zion, dena gertu, eta Bitoriano botoia sakatzeari beste lanik ez zuen izan.

Ondo gelditu zen, baina badaezpada, Lizundiak esan digunez, "orain argazkilari profesional bat kontratatzen dugu bilera garrantzitsuren bat egiten denean. Garai hartan ez geneukan hainbeste dirurik, ordea.

Hementxe bukatuko da argazki famatu zenbaiten nondik norakoa argitzen saiatu den erreportaje sorta hau. Hasi ginen kontatzen nola Martin Zabaletari pott egin zion argazki-kamarak Everesten, azalduko dizuegu orain noiz eta nork egin zion Gabriel Arestiri hamaika aldiz eta hamaika tokitan ikusitako beste erretrato hura.

Heriotzari zeharka begira

OSO gaisorik zegoen ordurako Gabriel Aresti. Handik hiru hila-betetara hilko zen, 1975eko martxoan, eta bere bizitzako azken argazki honetako bere espresioa heriotz hurbilaren aurrean sentitzen zuenaren metafora izan zitekeen: ezin aurrez aurre begiratu, ezin onartu, ez utzi nahi bere mundua izan zena, kultura, literatura, familia...



Ezkerretik hasita, Santiago Aizarna, Ortiz Alfau eta Gabriel Aresti.
(Ramón Velasco-ren argazkia).

Argazkia Bilboko "Galería del libro" liburutegian egin zen, kontsultatu ditudanetik inork gogoratu ez duen liburuaren baten aurkezpenean. Berarekin batera Ortiz Alfau et DV-ko Santiago Aizarna kazetaria ageri dira.

Egilearen izena lortzea ere ahanzturaren aurkako karrera latza izan da. Meli Esteban, Gabrielen alargunak ez zuen gogoratzen. Santi Aizarnak ere ez. Jose Luis Merino idazle bilbotarrak ere ez. Bilboko "Herriak" liburutegian lan egiten duen Fernando Silveirok, zeina garai hartan "Galería del libro"n aritzen bait zen, uste zuen Mikel Alonso, "Samar" argazki-dendakoarena zela. Mikelekin hizketan jarri eta berak ukatu egin zidan autoretza. Beste norbait zen, Mikelek aurpegiz gogoratzen zuena baina izenez ez. Bizpauru egunetara lagun batek luzatu zion Mikeli, eta ondorioz berak niri, argazki ospetsu honen egilearen izena: Ramón Velasco.

Ramón Velasco honek garai hartan free-lance modura egiten zuen lan, argazkigintzarekin batera beste zeregin

asko esku artean. Egun hartan "Galería del libro"n fortunatu eta Arestiren erretratorik famatuena atera zuen.

Berehala argazkia (Arestiren aurpegia soilik) Oskorriren lehen diskako azalean agertu zen, eta geroztik enziklopedia, liburu, aldizkari eta foileto askotan.

Azken pisten arabera, gaur egun Ramón Velasco Granadan bizi da, eta ez dakigu zertara dedikatzen den, argazkigintzara agian.

Ondo fijatu ezker, Gabrielelek ilea nahikoa luzea duela ikusiko du irakurleak. Denbora gutxira ospitaleratu behar izan zuen, eta sendagileak txima haiek mozteko agindu zion, sasoi haietan hippien gauza zelako, baina Gabriele ez zuen amorerik eman, euskara arazoetan eta, zorionez, beste hainbat alderditan eman ez zuen bezala. Hala dio esaerak, ezta? Genio y figura...

Kasta menderaezinenaren sinbolo

KORTATU taldearen lehen diskoa izan zen rok radikalaren barruan, eta orohar euskal musikaren barruan, gehien saldu eta zabaldutako zenetako bat, eta bere azaleko argazkia ere egilerik ezagutzen ez den irudi ikusi eta ospetsu bilakatu da. Fermin Muguruza abeslariak azaldu digunez, "guk diska hartan efektu bat lortu nahi genuen, nolabaite-



Kortatu taldearen lehen diskoa.

ko raza indómita (guk orduan gaztele-raz egiten genuen) bat ginela agertu, eta efektu hori lortzeko ez zitzaigun aizkolari zahar bat hartzea besterik bururatu. Orain kirol horiek nahiko taju-tuak daute, sendagileekin eta abar, baina lehen benetan sasoi aparta edukitzea behar zen kirol horietarako".

Aizkolaria Aiako Leon Txikito da. Oso txikia izaki gizona, aizkorak izugarria dirudi bere eskuetan. Gainera, diskoa atera zen garai hartan -1985. urtea- ZEN plana martxan jarri zuen polizia espainolak, eta berorri buruzko abesti bat egiteaz gain, gure Txikitori begietan marra beltz bat jartzea ere bururatu zitzaien Kortatu-koei, sospetxoso gisa, ironikoki. Argazkia zaharra denez eta,

bestetik, Leon Txikitoren familiartekorik gelditzen ez denez gaurregun, ezin izan dugu argazkiaren egileaz inolako aztarnarik lortu.

Erretrato haren egileak sekula usteko ez zuena, hala ere, gero hainbeste zabalduko zenik. Hona zifrak: disko horretatik 50.000 ale saldu ziren Espainia osoan, Frantzia 6.000, eta 8.000 Alemanian eta Italian.

Anekdotak bat: argazkia Erromako diska denda baten anagrama bilakatu da, 'Managua' deitzen den etxea. Han dago gure Leon Txikito aiarra, lasai asko, jaioterritik milaka kilometrotara egonda ere.

Uztapideren azken argazki "ofiziala"

1983an, Eskolarteko Bertsolari Txapelketa bukatu zenean, eskursio bat eratu zuten antolatzaileek maiatzaren 14erako. Nora: Uztapide zaharraren baserri-ara, Oiartzuna.

Autobusean zihoazen Mikel Mendizabal, antolatzailea, eta Juan Garzia Garmendia, hau Santo Tomas Lizeoko kuadrila bat aurkeztu zuelako txapelketan. Gaztetxoaren artean Xabier Euskitze eta Jon Sarasua ere bazihoazen.

Juan Garzia asko ibilia da argazkiak ateratzen, eta egun hartan ere kamara



Manuel Uztapide eserita, bertso-eskoletako umez inguratirik. (Juan Garziaren argazkia).

handi bat zeraman bizkarrean, 6x6koa. Hauxe izan liteke bertsolari hari egin-dako azken argazkia, handik hilabete batera edo hil bait zen.

Juan Garziak kopiak atera zituen de-nentzat, ezer kobratu gabe, eta Uztapide hil zenean hasi zen argazkia hainbat tokitan agertzen, baita egunkarietan ere, egilearen izenik aipatu gabe. Azken aldia Bertsolaritza Eskolartean kanpainako kartelean izan da.

Izenaren aipamena da Juan Garziak autoreari zor zaion errespetua erreibindikatzat eskatzen duen 'mesede' bakarra, edota argitaratu aurretik egileari baimena eskatzea, ziur aski inori ukatuko ez dion baimena. Argazki honen kasuan gertatutakoak behin eta berriro

4 EDIZIOA ERREPORTAIA

suertatu ohi den arazo zahar eta zabal bat erakusten digu: komunikabideetan haseratik egilearen izenik ez baldin bada jarri, gero nola jakin, detektibe pribatu bat horretarako kontratatu eze-

an behinipein, nor den argazkiaren egilea, une majiko batean pertsona haren irudia jaso eta betirako gure ninietan inprimaturik uztea posible egin duen sortzailea?